



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

ELIKAGAIAK ONTZIRATU ETA ETIKETATZEKO

Ontziratu eta enbalatzea

Ontzia honela definitu dezakegu: "*elikagaiak edukitzeko ontzia*".
Enbalajea, aldiz, honela definitu dezakegu: "*ontzia babesteko erabilitako materiala*".

Elikagaiekin kontaktua izan dezaketen materialek bete beharreko xedapen orokorrak bete beharko dituzte ontziek ere, hau da:

- Ontziratzea higiene baldintza egokietan egingo da.
- Ontziratzeke erabiltzen diren materialek ezin izango dituzte elikagaien ezaugarri organoleptikoak aldatu, ez dute osasunerako substantzia kaltegarri izango eta erresistentzia nahikoa izango dute.
- Ezin izango dira berriz ere erabili (salbuespenak salbuespen).
- Unean erabiltzen ez den ontziratzeke eta enbalatzeko materiala biltegira eraman beharko da gune babestu batera, ekoizpen gunetik urrun.

Etiketatzea

Elikagaien segurtasuna kontrolatzeko bitarteko bat da etiketa; beraz, ez du nahasbiderik eragingo ez konposizioari ez aurkezpenari dagokienez. Ezin du adierazi produktuaren gaineko efektu edo propietate faltsurik.



Etiketek ezinbestez honako hauek bildu beharko dituzte:

- **Saltzeko izena:** horren bidez adieraziko zaigu zein produktu den.
- **Osagaien zerrenda:** produktuaren konposatu guztiak zehaztuko dira horren bidez, proportzio handienetatik txikienetara.
- **Enpresaren identifikazioa:** izena, izen soziala eta fabrikatzailearen edo ontziratatu duenaren helbidea.
- **Eduki osoa:** ontzian dagoen produktuaren kopurua da. Bolumen unitateetan adierazten da produktu likidoetan, eta masa unitateetan adierazten da gainontzeko produktuetan.
- **Iraungitze-data edo zein den gutxieneko iraupena:** oso erraz galtzen diren elikagaietan, "iraungitze-datak" adierazten du zein diren azken eguna eta hilabetea produktua kontsumitzeko. Hain erraz galtzen ez diren elikagaietan eta elikagai egonkorretan, aldiz, "ahal bada, data hau baino lehen kontsumitu" esaldia agertu behar da. Ondoren, data agertuko da, eta data horrek adieraziko du zein den gehienezko epea produktu hori kontsumitzeko produktuaren kalitate-ezaugarri egokiak galdu gabe, betiere produktua kontserbazio baldintza egokietan gorde izan bada.
- **Kontserbatzeko eta erabiltzeko baldintza bereziak:** produktua modu egokienean mantendu eta kontsumitu dadin, produktua kontserbatu eta erabiltzeko baldintza bereziak behar izanez gero, baldintza bereziak etiketan agertu beharko dira.
- **Erabiltzeko modua:** produktua modu egokienean kontsumitu dadin, produktua nola prestatu eta konbinatu behar den jakinarazten zaigu horren bidez.
- **Lotea:** elikagaia zein lotetakoa den identifikatzen dugu adierazpen horren bitartez, normalean zenbaki bidez agertzen da. Lotea da produktu baten salmenta unitateen multzoa, produktu hori ekoiztu, fabrikatu edo ontziratua izan bada ia baldintza beretan.
- **Jatorria:** EBko herrialdekoak ez diren produktuen kasuan, produktu horiek nongoak diren edo nondik datozen agertu beharko da etiketan.